

## KAPITALAREN MINTEGIA

### 7. SAIOA

#### BOSGARREN ATALA

Bosgarren sekzioaren aurretik, honako gai orokorretaz arduratu da Marx *Kapitalean*: merkantziaren eta diruaren teoria abstraktuaz, dirutik kapitalerako eraldaketaz zein kapitalaren oinarritzko mugimenduaz, gainbalio absolutuaz eta gainbalio erlatiboaz. Bosgarren sekzio honetan (XIV., XV. eta XVI. kapituluetan), berriro ere, gainbalio absolutua eta erlatiboaz izango dira hizpide, baina zentzu desberdin batean; hau da, gainbalio absolutuaren eta erlatiboaren *kontzeptuak* hirugarren eta laugarren sekzioetan definitu bazituen, bosgarrenean gainbalioaren bi forma orokorren arteko ezaugarri komunak eta diferentzia nagusiak azalduko ditu Marxek, baita ere gainbalioaren eta lan indarraren arteko berezko harremana zein gainbalio-tasaren formula zuzenena.

#### XIV. KAPITULUA. GAINBALIO ABSOLUTUA ETA ERLATIBOA

XIV. kapituluaren, gainbalio absolutuaren eta erlatiboaren elementu komunak eta diferentziak azaltzeko, bi ardatz erabiltzen ditu Marxek: batetik, lan produktiboa eta, bestetik, subsuntzio formala eta erreala.

**Lan produktiboaren** ikuspuntutik, gainbalio absolutua eta erlatiboaz berdindu egin daitezke, biak ala biak substantzia beraz osatuta daudelako: lan produktiboa. Izan ere, Marxek darabilen kategoria honek, lan produktiboa, “*kapitalistarentzako gainbalioa ekoizten duen edo kapitalaren autobalorizaziorako [Selbstverwertung] erabilgarria den*” lanari egiten dio erreferentzia. Lanaren *izaera produktiboa*, horrenbestez, ez du definitzen bere dimentsio konkretuak, gainbalio ekoizteko ahalmenak baizik. Lan produktiboa ez da erabilera balioa ekoizten duen lana, gainbalioa ekoizten duen lana baizik. Marxek V. kapituluaren azaldu zuen moduan, ekoizpen modu kapitalistaren dinamikaren baitan, lan prozesu soila balorizazio prozesuari menperatuta dago.

**Subsuntzio formalaren eta errealaren** bitartez, Marxek gainbalio absolutu eta erlatiboaren arteko *diferentzia* ezartzen du<sup>1</sup>. Gainbalio absolutuaren ekoizpena kapitalak lanaren gainean ezartzen duen subsuntzio formalean oinarritzen da; aldiz, gainbalio erlatiboaren ekoizpena, kapitalak lanaren gainean ezartzen duen subsuntzio errealean. Subsuntzio formalak lan prozesua balorizazio prozesuaren menpeko bihurtu dela adierazten du, menpekotasun horrek lan prozesuan *iraultza teknikorik* inplikatzeko ez duenean. Subsuntzio errealaren bitartez, ordea, lan prozesuaren osaera teknikoak erabateko eraldaketa jasaten du. Gainbalio erlatiboaren ekoizpena kapitalak lanaren gainean ezartzen duen subsuntzio errealaren kontzeptuari lotuta dago eta, horrek lan prozesuaren eraldaketa teknikoak inplikatzeko duen heinean, *berariazko ekoizpen modu kapitalista* (gaztelaraz “modo de producción específicamente capitalista” deiturikoa) auresuposatzen du.

Azkenik, kapitulu honetan Marxek ekoizpen modu kapitalistaren izaera historikoa nabarmendu nahi du.

*La relación capitalista*, por lo demás, brota en un terreno económico que es el producto de un largo proceso de desarrollo. La *productividad alcanzada por el trabajo*, en la que se *funda* aquella relación, no es un don de la naturaleza sino de la historia.

Behin ekoizpen eredu kapitalista hegemonikoa eta autonomia bihurtu zenean, naturalki baldintzatutako lanaren indar produktiboa zein historikoki garatu ziren indar produktibo sozialak kapitalari berezkoak zaizkion indar bezala agertzen dira, ekoizpen eredu horren izaera historikoa ezabatzen delarik.

---

<sup>1</sup> Subsuntzio formala eta erreala kategorien inguruko azalpen sakonagoa irakurri nahi bada, ikus Marx, K. (2011), *El Capital. Libro I. Capítulo VI (inédito): resultados del proceso inmediato de producción*, siglo XXI, México.

## **XV. KAPITULUA. LAN INDARRAREN PREZIOAREN ETA GAINBALIOAREN MAGNITUDE-ALDAKETAK**

Hamabosgarren kapituluan, lan indarraren balioaren eta gainbalioaren arteko erlazioaz jardungo du Marxek, horretarako hiru parametro hartuz kontuan: lanaldiaren iraupena, lanaren intentsitatea eta lan indarraren produktibitatea. Parametro bakoitzaren jokaera garrantzitsuenak aztertuz, Marxek lan indarraren balioaren eta gainbalioaren arteko erlazioari dagozkion lege orokor batzuk ateratzen ditu.

A. Lanaldiaren iraupena eta lanaren intentsitatea konstanteak direnean eta lanaren indar produktiboa aldakorra denean.

1. Legea: iraupen jakin bat duen lanaldia beti balio-produktu berdinean adierazten da, lanaren produktibitatea eta, berarekin batera, produktu kopurua eta merkantzia indibidualaren prezioa aldatu arren.
2. Legea: Lan indarraren balioa eta gainbalioa aurkako zentzuan aldatzen dira. Hau da, lanaren indar produktiboa aldatu eta lan indarraren balioa handitzen bada, orduan gainbalioa txikitu egingo da eta, alderantziz, lanaren indar produktiboa aldatu eta lan indarraren balioa txikitzen bada, gainbalioa handitzen da. Lan indarraren balioaren eta gainbalioaren handitze eta gutxitze hori magnitude berean gertatzen da, baina ez proportzio berean.
3. Legea: gainbalioaren handiagotzea edo txikiagotzea lan indarraren balioaren handiagotzearen edo txikiagotzearen ondorioa da eta inoiz ez kausa.

Hirugarren lege horrek ekoizpen modu kapitalistaren legeen baitako lan indarraren eta gainbalioaren elkarrekiko aurkakotasun izaera adierazten du, bai eta aurkakotasun horren izaera erlatiboa ere; izan ere, adibidez, nahiz eta lan indarren balioa modu absolutuan handitu, gainbalioak egiten duenaren baino proportzio txikiagoan egin dezake gora lan indarraren balioak, kapitalistaren eta langilearen arteko aldea, bizi-egoerari dagokionez, are eta handiagoa bihurtuz.

B. Lanaldiaren iraupena konstantea denean eta lanaren indar produktiboa eta lanaren intentsitatea aldakorrak direnean.

Lanaren indar produktiboa handitzen denean, lanaldi batean ekoizten den produktu kantitatea handitu egiten da, baina produktu bakoitzaren balio kantitatea murriztu egiten da, indar produktiboaren hazkuntza horrek produktu bakoitza ekoizteko beharrezko lanaren kantitatea murriztu egiten duelako. Aldiz, lanaren intentsitatea handitzen denean, lanaldi jakin batean ekoizten den produktu kantitatea ere handitu egiten da, baina produktu bakoitzaren balio kantitatea murriztu gabe, produktu bakoitza ekoizteko beharrezko lanak ez duelako aldaketarik jasan. Beraz, produktuen kantitatea handitzen den heinean, guztira sortzen den balio kantitatea ere handitu egiten da.

Lanaldi batean sortzen den balio kantitatea handitzen denean, posible da lan indarraren balioak eta gainbalioak aldi berean gora egitea, gradu berdinean edo desberdinean. Lan indarraren prezioak gora egiten badu ere, gerta liteke prezioaren hazkunde hori lan indarraren balioaren gutxitze bezala ematea; izan ere, prezioaren gorakada horrek lanaren intentsitatea handitzeak suposatzen duen kostu guztia ez badu ordezkutzen, azkenean lan indarraren balioa gutxitzea inplikatzeko du. Azkenik, lanaren intentsitate berriak ekoizpen adar guztiak hegemonizatzen dituen heinean, intentsitate gradu berri hori gradu normalean bihurtuko litzateke.

C. Lanaren indar produktiboa eta intentsitatea konstanteak direnean eta lanaldiaren iraupena aldakorra denean.

Lanaldiaren iraupena murrizteak ez du inplikatzeko lan indarraren balioa gutxitzea, ezta beharrezko lan denboraren gutxitzea ere, gain-lanaren eta gainbalioaren gutxitzea baizik. Aldiz, lanaldiaren iraupena handitzen denean, lan indarraren balioa eta gainbalioa aldi berean handitu daitezke, gradu berdinean edo desberdinean. Horrez gain, lanaldiaren iraupena luzatzean, lan indarraren prezioa lan indarraren balioaren azpitik gora liteke, baina gertaera horrek limite absolutu bat du: lan indarraren aktibazioarako eta erreproduktzioarako baldintza normal guztien ezabapena.

D. Lanaldiaren iraupenean, lanaren indar produktiboan eta lanaren intentsitatean aldi berean aldaketak gertatzen direnean.

1. Lanaren indar produktiboa gutxitzen denean eta aldi berean lanaldia luzatzen denean.

Nahiz eta gainbalioaren magnitude proportzionala murriztu, gainbalioaren magnitude absolutuak aldaketarik jasan gabe jarrai lezake; nahiz eta gainbalioaren magnitude absolutuak gora egin, bere magnitude proportzionalak berdin jarri lezake eta, azenik, lanaldiaren luzapena maila jakin batera iristen bada, bi magnitudeek gora egin dezakete.

2. Lanaren indar produktiboa eta intentsitatea handitzen direnean eta aldi berean lanaldia murrizten denean.

Lanaren indar produktiboa eta intentsitatea handitzen direnean, lanaldiaren iraupena murriztu liteke. Murrizketa horren limite absolutua beharrezko lanak adierazten duen lanaldia da. Lanaldiaren iraupena limite horietara murriztuz gero, gain-lanaren zatia ezabatzen da eta, horrenbestez, baita gainbalioa ere, baina hori ezinezkoa da kapitalaren erregimenaren baitan, berau gainbalioaren ekoizpenean oinarritzen delako.

Gai horrekin lotuta, Marxek zeinbat ohar kritiko ematen ditu pasarte honetan. Merezki du zati batzuk erreproduzitzea:

La supresión de la forma capitalista de producción permite restringir la *jornada laboral* al *trabajo necesario*. Este último, sin embargo, bajo condiciones en lo demás iguales, ampliaría su territorio. Por un lado, porque las condiciones de vida del obrero serían más holgadas, y mayores sus exigencias vitales. Por otro lado, porque una parte del plustrabajo actual se contaría como trabajo necesario, esto es, el trabajo que se requiere para constituir un fondo social de reserva y de acumulación. (...) Una vez dadas la intensidad y la fuerza productiva del trabajo, la *parte necesaria de la jornada social de trabajo para la producción material* será tanto más corta, y tanto más larga la parte de tiempo conquistada para la libre actividad intelectual y social de los individuos, cuanto más *uniformemente* se distribuya el trabajo entre todos los miembros aptos de la sociedad, cuanto menos una capa social esté en condiciones de quitarse de encima la necesidad natural del trabajo y de echarla sobre los hombres de otra capa de la sociedad. El límite absoluto trazado a la reducción de la jornada laboral es, en este sentido, la *generalización del trabajo*. En la sociedad capitalista se produce tiempo libre para una clase mediante la transformación de todo el tiempo vital de las masas en tiempo de trabajo.

## XVI. KAPITULUA. GAINBALIO-TASA ADIERAZTEKO ZENBAIT FORMULA

XVI. kapituluaren bosgarren sekzioaren ondorio bezala uler daiteke. Kapitulu honen helburua da langileriaren gaineko esplotazioa bere forma puruan aztertzeko formula teorikoa azaltzea; beste modu batera esanda, langileriari dominazio burgesaren funtsa zertan datzan identifikatu ahal izateko aparatua teoriko kritikoa eskaintzea. Formula kritikoa hori gainbalio-tasa deiturikoa da.

Batetik, ekonomialari burgesek gainbalio-tasa kalkulatzeko erabiltzen dituzten formula ezberdinak kritikatzeko dituzte Marxek. Bestetik, gainbalio-tasaren kontzeptu zientifikoa aurkezten du, forma ugari hartu ditzakeena:

$$\frac{\text{gainbalioa}}{\text{kapital aldakorra}} \left(\frac{p}{v}\right) = \frac{\text{gainbalioa}}{\text{lan indarraren balioa}} = \frac{\text{gainlana}}{\text{beharrezko lana}}$$

Formula horiei beste bat gehitzen dio Marxek:

$$\frac{\text{gainbalioa}}{\text{lan indarraren balioa}} = \frac{\text{gainlana}}{\text{beharrezko lana}} = \frac{\text{ordaindu gabeko lana}}{\text{ordaindutako lana}}$$

Azken formula horrek agerian uzten du kapitalaren izaera despotikoa, kapitalak, funtsean, besteen lanaren gaineko agintea adierazten baitu; izan ere, gainbalioa ordaindu gabeko lanaren gaineko apropiazioa da. Formula horrek, aldi berean, kapitalaren fetitxismoa edo mistifikazioa ezabatzen du, autobalorizazioaren esentzia ordaindu gabeko lanaz jabetzeko gaitasun jarraituan aurkitu daitekeelako.